



## LANKIDETZA-HITZARMENA, IÑIGO ARITZA IKASTOLAREN ETA OLAZTIKO UDALAREN ARTEKOA

Olaztin, 2023ko uztailaren 19an

### BILDURIK

**Alde batetik:** Joseba Vizuite Ascargorta, Olaztiko alkatea (NAN zk.: 73419073Z), Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz. Helbidea: Gartzia Ximenez plaza, 1, Olazti (IFK: P3125000D).

**Beste aldetik,** Jon Morcillo Beunza, Altsasuko Iñigo Aritza ikastolaren ordezkari gisa (helbidea: Basomutur z.g., Altsasu; IFK:F31081342)

Bi aldeek kontratu hau egiteko nahiko ahalmen eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta

### HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

**Bat.** Lankidetzaz hitzarmen honek arau hauetan ezarritakoa bete beharko du: Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, 221. artikuluan eta hurrengoetan, eta, modu analogikoan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, hura garatzeko erregelamenduan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua), Olaztiko Udalaren 2022. urteko jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan, eta 2022rako aurrekontua betearazteko oinarrietan (2021erako luzatuak). Halaber, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoak bete beharko dituzte sinatzaileek.

**Bi.** Olaztiko Udalaren helburuetako bat da euskarazko hezkuntza aurrerakoa, berritzailea eta kalitatezkoa bultzatzea, eta helburu hori lortzeko ezinbestekoa da Olaztiko Udalaren eta Iñigo Aritza Ikastolaren arteko lankidetzaz.

**Hiru.** Olaztiko Udalaren 2023rako aurrekontuak 1 323224820000 aurrekontuko aplikazioa du ("Iñigo Aritza Ikastolari Ekarpena"), 20.000 eurokoa, Iñigo Aritza Ikastolaren jarduerak dakarren gastuaren zati bat diruz laguntzeko.

**Lau.** Hezkuntzaren arloan, ordenamendu juridikoak botere publiko guztiei agintzen die, irakaskuntza publikoa bermatzeaz gain, eskaintza publikoa osatzen duten beste ikastetxe batzuk sortzen eta mantentzen laguntzeko, Konstituzioaren 27. artikulua eta arlo horretan indarrean dagoen lege-esparruaren arabera. Mandatu hori udalei ere badagokie, toki-araubideari buruzko legeak ahalmena ematen baitie beste administrazio publiko batzuen jarduerara osagarriak egiteko, bereziki, hezkuntzari dagokionez. Alde horretatik, eta osagarritasun hori bilatze aldera, azken hogeita hamar urteetan, Nafarroako udal askok ezarri dituzte ikastolak sustatzeko eta babesteko neurriak; izan ere, ukazinezko ekarpena egin diote Nafarroako gizarteari euskarazko irakaskuntza bermatzeko bidean.



Jakina denez, Udal hau, eskumen hori baliatuz, Iñigo Aritza Ikastolari diru-kopuru bat ematen dio urtero dirulaguntza gisa; izan ere, gutxienez duela hamar urtera arte Olaztin ikastola bera zegoen, eta bertan haur-hezkuntzako zikloa ematen zitzaien Olaztiko zein Ziordiko haurrei. Ziklo hori Altsasura eraman zenetik, Altsasuko Iñigo Aritza Ikastolak bere baitan hartzen ditu Olaztiko haur nahiz gazteak.

Azaldutako guztiagatik, bi alderdiek erabaki dute DIRULAGUNTZA ESLEITZEKO HITZARMEN hau sinatzea, honako klausula hauen arabera:

## **KLAUSULAK**

### **I-Hitzarmenaren xedea:**

Hitzarmen honen xedea da dirulaguntza bat ematea Iñigo Aritza Ikastola irabazi asmorik gabeko kooperatibari hezkuntza-adinean dauden olaztiarrei kalitatezko euskarazko hezkuntza aurrerakoia eta berritzailea emateagatik. Hori guztia egiten da Olaztin euskal kultura-mugimendua sustatzeko Udalaren helburu orokorraren barruan, bai eta hezkuntza-programa/-jardueren, material didaktikoaren, hezkuntza-jardunaldi berezien, hitzaldien, solasaldien eta abarren gastuak ordaintzeko ere.

Iñigo Aritza Ikastola Ikastolen Elkarteko kidea da, eta horrek honako hauek bermatzen ditu: aitzindaria izatea ikasmaterialen sormenean eta irakasleen trebakuntzan; eskaintza hobetzeko etengabe lan egitea; pedagogia aurreratua eta aurrerakoia izatea, euskal curriculum aurreratu eta oinarri hartuta. Euskarazko irakaskuntza eskaintzen du, eleaniztasun irmoarekin, eta aitzindaria da IKTen erabileran.

### **2.- Aurrekontu-kreditua eta dirulaguntzaren zenbatekoa.**

Olaztiko Udalak gehienez 20.000 euroko dirulaguntza emango dio Iñigo Aritza Ikastolari 2023. urtean, eta gastua aurrekontuko 1323224820000 partidaren kargura egingo da (Iñigo Aritza Ikastolari Ekarpina).

Honako gastu hauek lagunduko dira diruz: material didaktikoa eta tresnak, hezkuntza-ikastaroak eta/edo -jardunaldiak, hitzaldiak, solasaldiak, ezohiko jarduerak, eta abar.

Ez dira inola ere diruz lagunduko dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantzaren 7. artikuluan ezarritakoak, hain zuzen ere honako gai hauei buruzkoak:

*b) Lokalak moldatzea edo eraikinetako beste edozein esku-hartze.*

*c) Ondasun higiezinaren erosketak.*

*d) Funtzionamenduaren ondoriozko gastuak (alokairua, telefonoa, argia, langileen nominak, etab.).*

### **3.- Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

Hitzarmen honetan aurreikusitako dirulaguntza bateragarria da beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako dirulaguntzekin, betiere



diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada. Hitzarmen honen bidez emandako zenbatekoa eta beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuetatik lortutakoa batuta jardueraren kostua gainditzen bada, ordaindu beharreko dirulaguntzari muga bat ezarriko zaio, gainfinantzaketarik gerta ez dadin.

#### **4.- Dirulaguntza ordaintzeko epeak.**

Olaztegui Udalak hiru epetan ordainduko dio dirulaguntza Iñigo Aritza Ikastolari:

2.- 2022ko irailaren lehenengo hamabostaldian, 2022-2023 ikasturtearen justifikatutako gastuei dagokiena.

#### **5.- Iñigo Aritza Ikastolak dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu behar duen dokumentazioa.**

Jarduera egiteko edo funtsak aplikatzeko epea 2023ko ikasturtearen hasieratik amaierara artekoa izango da.

Emandako dirulaguntzak bere helburua bete duela egiaztatzeko, Iñigo Aritza Ikastolak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- 2023ko abuztuaren 31 baino lehen, 2022-2023 ikasturteari dagozkion agiri hauek:

- a) Egindako jardueraren memoria xehea.
- b) Entitateko lehendakariak edo behar bezala egiaztatutako ordezkariak duenak izenpetutako instantzia, alkateari zuzendua, dirulaguntzaren ordainketa eskatzeko. Bertan zehaztuko da transferentzia egiteko erabiliko den kontu-korrontearen zenbakia.
- c) Diruz lagundutako jarduera dela-eta ordaindutako gastu guztien faktura eta frogagirien zerrenda, honako hauek adierazita: hornitzaileen identifikazio-datuak, fakturak, guztirako zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, egindako ordainketa.
- d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuk badaude, zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira.
- e) Onuradunaren zinpeko aitortpena, frogatzen duena egiaztasun gisara aurkezten diren fakturak diruz lagundutako jarduerari aplikatu zaizkiola.

Beti ere, fakturek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

- Jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatutakoak izan beharko dute.
- Jaulkitzailearen NANA edo IFZ, izena eta helbide soziala jaso beharko dituzte.
- Fakturaren zenbakia eta jaulkipen eguna izan beharko dituzte (egun hori jarduera egin den aldikoa izango da). 2022-2023 ikasturtekoak izan beharko dute.

Ezarritako epean dokumentazioa aurkezten ez bada, Olaztegui Udalak Iñigo Aritza Ikastolak hitzarmenari uko egiten diola ulertuko du, eta ikastolak ordaindutako zenbateko guztiak itzuli beharko ditu.

## **6.- Iñigo Aritza Ikastolaren betebeharrak.**

Iñigo Aritza Ikastolaren betebeharrak izango dira Olaztiko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren 14. artikuluan zerrendatutakoak eta, horiez gain, honako hauek:

### **Berdintasuna**

Iñigo Aritza Ikastolak ez du onartuko jarrera sexistarik, ez eta sexuagatiko edo jazarpen moralagatiko tratu-diskriminaziorik ere.

### **Euskara**

Iñigo Aritza Ikastolak euskara erabiliko du antolatzen dituen jardueretan. Jarduera eta programen publizitatea euskaraz egingo da. Testu idatziak zuzenak direla ziurtatuko du. Agerraldi publiko guztietan euskara erabiliko du, ahoz zein idatziz.

### **Hezkuntza berritzailea.**

Iñigo Aritza ikastolak hezkuntza-eredu berritzaileen aldeko apustuari eutsiko dio, metodologia eta material berrien aplikazioa bultzatuz.

### **Publizitatea.**

Diruz lagundutako jarduera eta programen publizitatean Olaztiko Udalaren laguntza jasotzen duela adieraziko du. Horrela, Olaztiko Udalaren lankidetzak espreski eta argi jasoko da honako euskarri hauetan: katalogoetan, eskuko programetan, karteletan, etab. Material hori euskaraz zabalduko da, irudi eta hizkuntza sexistarik erabili gabe.

## **7.- Hitzarmenaren indarraldia.**

Hitzarmen hau sinatzen den egunetik 2022-2023 ikasturtea amaitu arte egongo da indarrean.

## **8.- Hitzarmena ez betetzea.**

Hitzarmenean ezarritakoa ez betetzeak emandako dirulaguntza galtzea ekar dezake.

Hitzarmen honetan ezarritakoak dirulaguntza emateko oinarri arautzaileen izaera du. Beraz, oinarrietan ezarritakoa ez betetzeak, datuak faltsutzeak edo diruz lagundutako jardueretan funtsezko aldatetak egiteak dirulaguntza galtzea eta jasotako zenbatekoak itzultzea ekarriko du, 38/2003 Legean ezarritakoaren arabera.

## **9.- Argitalpena**

Dirulaguntza honako hauetan argitaratuko da: Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean, Udaleko iragarki-taulan, webgunean eta Gardentasunaren Atarian.



## 10.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen hau bertan eta dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean, 38/2003 Legean eta 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera arautuko da; horretaz gain, Nafarroako toki-entitateentzat ezarritako araudia aplikatuko da.

Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira, izaera juridiko-administratiboa dutelako.

Eta adostutakoa behar bezala jasotzeko eta betetzeko konpromisoa hartzeko, alderdiek dokumentu honen bi ale sinatzen dituzte, orri guztietan, hasieran adierazitako tokian eta egunean.

ALKATEA  
Joseba Vizueta Ascargorta

UDAL IDAZKARIA  
Sandra Martínez Gutiérrez

IÑIGO ARITZA IKASTOLAKO ZUZENDARIA  
Jon Morcillo Beunza



